

B

BARREN

TOKIKOM

PAKO IRIONDO LIZARRALDE

1920ko urteetan, Iñaki eta bere emazteak Lizarraldeko udal-zerbitzuak hartzen zituzten bitartean, bere izena ezarri zuten Mendiko Kontuei buruzko liburu baten idazkari gisa. Mendiko Kontuei buruzko liburu hori "Euzko Mendiko Kontuei buruzko liburu" izenarekin ezarri zen. Mendiko Kontuei buruzko liburu hori 1970ko hamarkadan idazten hasi zen. Mendiko Kontuei buruzko liburu hori 1970ko hamarkadan idazten hasi zen. Mendiko Kontuei buruzko liburu hori 1970ko hamarkadan idazten hasi zen.

Mendiko Kontuei buruzko liburu hori 1970ko hamarkadan idazten hasi zen. Mendiko Kontuei buruzko liburu hori 1970ko hamarkadan idazten hasi zen. Mendiko Kontuei buruzko liburu hori 1970ko hamarkadan idazten hasi zen.

Mendiko Kontuei buruzko liburu hori 1970ko hamarkadan idazten hasi zen. Mendiko Kontuei buruzko liburu hori 1970ko hamarkadan idazten hasi zen. Mendiko Kontuei buruzko liburu hori 1970ko hamarkadan idazten hasi zen.



“Mendiko kontuei sekula ez diuet ezetzik esan”

Pako Iriondo



GOIMEK

Doitasun handiko mekanizazioan
puntakoa den kooperatiba gazte
batek honako hauek behar ditu:



CNCdun FRESATZEKO MAKINARAKO BI LANGILE DOS OPERADORES DE FRESADORA CNC

(Erref 11/11.)

LANPOSTUAREN PROFILA: Fresatzeko makina handiak (zubiak, zutabe mugikorrekoko makinak edo mandrinatzeko makinak) erabiltzen —bai arbastatze-eragiketetan, bai akaberakoetan— esperientzia duten bi pertsona behar dira.

ESKATZEN DA: Goi-mailako heziketa-zikloko trebakuntza, antzeko lanposturen batean eskarmentua izatea, CNC HEIDENHAIN erabiltzen jakitea, euskara menderatzea, ekimena eta taldean lan egiteko gaitasuna eta egiaztapen-tresnak (alexometroak, mikrometroak...) erabiltzen jakitea.

ESKAITZEN DA: Lanpostu finkoan berehala hastea eta esperientziaren araberako ordainsaria.

LKS

30 eguneko epean, aurrez aukeratutakoel bakarrik erantzungo zaie.

www.lks.es

Erroreak zuzatu dituzten berria erabiltzeko, erabiltzailearen izena 15/11/2011 legetatik, hots, data horretarako bideratzen legetatik ezarritako diren erabiltzailearen izenak.

MONDRAGON



Interesa izanez gero, bidali curriculuma: seleccion.2@lks.es; edo Zamudioko Parke Teknologikora 207 A eraikina, 48170, Zamudio Bizkaia. Dagokion erreferentzia zehaztuz. (Erref:11/11)

Banaketa sistema hobetzeko helburuarekin,
BARREN jasotzen duzuenon buzoietan pegatina txiki bat jarri dugu
Ez baduzue pegatina jartzerik nahi, esalguzue lasai (943 744 112). Eskerririk asko!

BARRENeko banaketa sistema errazteko behar-beharrezkoa dugu zuen buzoiak pegatinarekin markatzea.

Mesedez, ez ezazue pegatina kendu buzoitik.
Gure banatzaileek eskertuko dute.



Energiak berritzen Eibarren

Dinosauroak aspaldi hil ziren, harriztar batek jota edo haren hautsak tristetuta eta itota, diotenez. Piztia basati eta erraldoiok menpean zuten mundua, baina fosil bihurtu ziren denak lurpean, eta are eta lurperago joan ziren apurka; han, presiopean, fosila energia beltz bihurtu zen, harik eta bi hankako arduragabe batzuek lurrazalera atera zuten arte. Horrela baliatu dute aukera dinosauroek mundua berriz konkistatzeko –Zeinek dio beste mundutik bueltatzen diren mamuak ez direla existitzen?–.

Orduz geroztik, Washingongo dinosauroek argi daukate. Begira Noah Chomskyren aburua Afrika iparraldeko matxinadaz: “Washington eta bere aliatuek ongi ezarritako printzipiotzat dute demokrazia helburu estrategiko eta ekonomikoekin ados dagoenean soilik dela onargarria: bikaina etsaiaren lurretan (puntu batetaraino), baina ez gure atzeko patioan, baldin eta, kasu onenean, egokiro hezi ezin badira”. Euskarak ere ez dio gezurrik zentzu honetan; euskaraz edukatzea eta domestikatzea gauza bera da: hezi. Beraz, Hezkuntza Saila *Departamento de Domesticación* litzateke.

Datorren kurtsoan Energia Berriztagarrien Gradua ipiniko dugu martxan Eibarko Injinerutza Eskolan. Dinosauroen akademiatik urrun Europan lehenbiziko aldia izango da holakorik jartzen dela. Aukera ederra da

eskualdeko gazteentzat bertatik bertara haizearen, uraren eta eguzkiaren energiaz jabetzeko, energia libreetatik libreki pentsatzen ikasteko, energia beltzak domestikatu gabe. Gainera, gasolinaren prezioa ikusita, ez dago beste aukerarik.



Alain Ulazia

“Nire txanda” atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitetz gurekin harremanetan:
943 744 112 edo barren@elgoibarkoizarra.com

“Datorren kurtsoan Energia Berriztagarrien Gradua ipiniko dugu martxan Eibarko Injinerutza Eskolan”

INAUTERIETAKO ERRETRATUAK ETA BIDEOAK JARRI DITUGU WEBGUNEAN!



www.elgoiBARREN.net

**Egin
klik
eta
ikusiko
duzu**

ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA

Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com


BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARRE**Nek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Aina Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Aina Argoitia
PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalua Arnaiz
MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue
KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Aina Sedano, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo.
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



GUTUNAK



BARRENeK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Eibarren izan den lan istripua salatu du LABek

Gaur, martxoaren 2a, lan istripuz hil da M.A.D.G., 36 urteko langile ekuadortarra, aldamiotik erorita. Istripuaren unean langilea aldamioa desmuntatzen ari zen, epaitegiaren ondoko eraikin bateko fatxada berritzeko obretan.

LAB sindikatutik, lehenik eta behin, dolumina eta elkartasuna adierazi nahi diegu hildako langilearen familiari, lagunei eta lankideei.

2011ean dagoeneko Euskal Herrian gutxienez hamar langile hil dira euren lanpostuetan. Langileok bizi ahal izateko egiten dugu lan, ez saiakera horretan hiltzeko. Lan istripuak ez dira bizitzako gertakari arruntak, langile bat hiltzea ez da lanaren ezaugarri bat. Lan istripuak patronalak lan egiteko orduan ezartzen dizkigun baldintzen eta lan egiteko moduen emaitza dira. Langile hau eraikuntzan ari zen lanean, eta sektore horretan nagusi diren prekaritateak, esplotazioak lan baldintza txarrekin eta lan erri-moak hil egiten dute. Gainera, langile hori kontratatuta zeukan enpresan ustez hainbat irregulartasun ematen dira.

Modu berean, EAEko administrazioak antzua den "hitzarmen sozialaren" baitan ["LOTU" kanpaina bezalakoak] hutsalak eta eraginkortasunik gabeak diren kanpaina publizitarioak sustatzen dituela salatu behar dugu. Beste behin ere tamalez bistakoa da ez dutela inongo emaitzarik ematen, ikusi besterik ez dugu gaur Eibarren gertatutakoa, ikusi besterik ez dugu joan den urtean eraikuntzan zenbat istripu izan ziren.

Horregatik guztiagatik, langileok laneko gaitasunetik, eta lan istripuekiko tolerantzia zero aldarrikatu eta adierazi behar dugu. Arazo horiek bukatzeko eredu aldaketa bultzatu behar dugu, gure osasun eskubidea egiazkoa izan dadin aldaketa politikoa, ekonomikoa eta soziala aldarrikatuz.

Aldaketa hori ez da etorriko Gasteiz, Iruñea edo Baionatik; patronalak eta legeek ez digute ezer oparituko. Aldaketa langileok ekarriko dugu, lantoki, herri eta auzo bakoitzean hartutako gure konpromisoen ondorioz, hori baita gure osasuna eta bizia defendatzeko modu bakarra.

Eibarren 2011ko martxoaren 2an

LAB (Oharra: gutun hau joan zen egunean iritsi zen erredakziora) ©

XIV. Pilota Eguna

Ikastolaren izenean eskerrak eman nahi dizkiegu joan den larubatean, martxoaren 5ean, ospatu genuen XIV. Pilota Eguna antolatzen lagundu duen eta babeslea izan den Euskadi Kutzari, eta baita Elgoibarko Pilota eskolako arduradunei ere.

Bestalde, eskerrik beroenak parte hartu duten neska-mutleiei.

Datorren urtean ere laguntzeko prest egongo zaretelakoan, agur bero bat.

Pilota Eguna Batzordea ©

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENeN edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeek zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelez datorren eskutitz argitaratuko.



Maialen Arnedo

Z a p a -
tuan, ba-
tzuek ho-
rren gustu-
ko dituzten
inauteriak os-
patu genituen. Ai-
tortu beharra daukat
ez zaidala jai hau gehiegi
gustatzen, baina mozorroa jantzi
eta kalera irten nintzen. Plaza aldean

ibili ginen arratsaldean Atxutxikoak, eta, iluntzean, Madalaruntz
jaitsi ginen koadrilakoak.

Gauak luzerako eman zuen; apaiz, elurretako panpina, ninja dortoka,
ganba zein punkys beteta zeuden kaleak, Madalan giro ederra zegoen, eta
tabernak jendez gainezka. Lagunekin lehenengo taberna zapaldu nuen,
baina kantuaz ez naiz oroitzen. Horrenbeste entzun eta gero...

“Taberna ugari zapalduko ditugu, eta guztietan, edalontzia eskuan”

“Botia jarriko dogu neskak?” “Bai, gaur ni bote”. Dirua poltsikoan sar-
tuta barrarantz abiatuko da koadrilakoren bat. “Barcelo cola”. Edaria har-
tuta lagunengana gerturatuko da gero. Dantza apur bat, trago pare bat eta
algarak. Tabernaz aldatzeko gogoak daukagu, eta bagoaz beste batera txar-
marra eskuan hartuta. Behekora abiatu gara, oraintxe bertan entzun dugun
kantua dago jarrita. En fin. “Ze, kubata bat?”, “Bai, ondo”. Berriz dantza,
berriz trago pare bat eta berriz algarak. Gauean zehar taberna ugari zapal-
duko ditugu, eta guztietan, edalontzia eskuan.

Baina ez da hau inauterietako gauza. Parrandan ateratzen garen ba-
koitzean gertatzen da. Lehen, askotan etortzen zitzaidan galdera hau bu-
rura: Ez al gara gai alkoholik gabe ondo pasatzeko? Nik edaten dut zapa-
tuetan, ez dut gezurrik esango, baina ondo dakit freskagarri bat hartuta ere
gustura ibiltzen naizela. Zer uste duzu zuk, Joanes?



Joanes Rodriguez

Ez da erreza izaten ohiturak aldatzea, ko-
de eta etika sozialek markatzen dutena egite-
ari uztea; kafea bazkalostean, kopa eta puroa,
txikitoak, litroak lagunekin... Azken finean, para-
digma ezberdinek markatzen dituzte geure joka-
bideak eta paradigma ohiek aldatu artean, sekula
ez dugu hau eraldatzeko argirik ikusiko.

Gogoan dut nik ere 14 urte genitueneko garaia.

Guk geure paradigma propioa sortu genuen; geure adi-
neko jendea tabernetan ibiltzen zenean, guk *playmobilekin* jo-
lastea erabaki genuen San Lorentzon; porroekin hasi zirenean,
bizikletan joaten ginen herriko fabrika zaharrak “esploratzera”
eta abuztuko oporraldian Saloura mozkortzera joaten zirenean,
guk Santiago bidea edo interraila egiten genuen. Inork ez gin-
tuen ulertzen, iseka egiten ziguten.

Inauterietan ere lepo dibertitzen ginen, izugarriko muntaiak
prestatzen genituen txiki-txikitatik: Mediku zoroak, Asterix eta
Obelix, Inuitak, Espazioko hanburgesa saltzaileak, Eratzunen
jauna, tongo song batukada... eta beste hainbat abentura. Zen-
bat denbora eskaintzen genion honi guztiari, inauterietako lehia-
keta irabazteari, prozesua disfrutatuz eta egindakoa biziz...

“Ez al da alkohola mozorrotzeko beste era bat?”

Azken finean, jendeak ulertzen ez duenari beldurra dio eta
benetan pentsatzen dutena adierazteko mozorro bat behar iza-
ten dute. Ez al da alkohola mozorrotzeko beste era bat? Egune-
rokotasunean egiten ez duguna egiteko aitzakia bat? Dauzka-
gun konplexu eta beldur guztiak galdu arte, ez dugu geure pa-
radigma propiorik sortuko.

ESKERTZA

JOSE JAUREGUI URQUIZU



2011ko martxoaren 5ean hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Guass diskoteka egon zen eraikina bota dute aparkalekuak egiteko

2010eko martxoaren 31n itxi zuten diskoteka, 30 urteko ibilbidearen ostean

Guass diskoteka egon zen eraikina bota egin dute aste honetan, eta gune horretan aparkalekuak egiteko asmoa dauka Udalak. Ordaindutako aparkalekuak izango dira, 50 bat plaza, eta tarifak dagoeneko onartu ditu osoko bilkurak: Eguenez (08:00etatik 20:00etara) ibilgailuak aparkatzeagatik 0,60 euro ordaindu beharko dira orduko, eta gaueko tarifa (20:00etatik 8:00etara) 0,125 euro ordukoa izango da. Alfredo Etxeberria alkateak azaldutakoaren arabera, aparkalekuetatik ateratzen den dirua eraikinaren jabeei alokairua ordaintzeko erabiliko du Udalak.

Guass diskoteka 2010eko martxoaren 31n itxi zuten, 30 urteko ibilbidearen ostean. Bi arrazoi eman zituen Udalak: Batetik, leku egokia zela aparkaleku bat egiteko eta, gainera, Hiri Antolamendurako Plan Nagusian ere, Deba ibaiaren alboan dauden enpresak eta lokalak botatzea jaso zutela. Bestetik, "bizikidetzaz arazo larriak" sortzen zituela azaldu zuten.



Bederatzi ibilgailu elektriko jarriko dituzte maiatzerako herritarren eskura



Elgoibarko Udalak hainbat ibilgailu elektriko jarriko ditu maiatzerako, partikularrek eta enpresek erabili ahal izateko. Modu horretan, hiri mugikortasuneko laborategi bihurtu nahi dute Elgoibar Gipuzkoako Foru Aldundiak, Energiaren Euskal Erakundeak eta Elgoibarko Udalak berak, eta elkarlanean ari dira. Markel Olano Gipuzkoako ahaldu nagusiak, Arantza Tapia Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako foru diputatuak eta Alfredo Etxeberria Elgoibarko alkateak aurkeztu zuten egitasmoa, eta Udalak bederatzi ibilgailu elektriko eskatuta dituela aurreratu zuen Etxeberriak.

Elgoibartarrek energia fotovoltaikoan inbertitzeko aukera izango dute

Energia garbia sortzeko interesa duten elgoibartarrek bilera egin zuten martitzenean Kultur Etxean, eta han azaldutakoaren arabera, elgoibartarrek badute dagoeneko energia fotovoltaikoan inbertitzeko aukera. 800 euroko inbertsioa eginez, Herri Eskolako eta Mintxetako teilatuetan jarri dituzten panel fotovoltaikoen 25 urterako proiektu administratiboa eskuratu ahal izango dute. Foru Aldundiak zabaldutako kalkuluen arabera, batez besteko errentagarritasuna %6koa izango da. Eguzki plaken birtartez sortutako argindarra Iberdrolari salduko zaiola azaldu du Carlos Ormazabal Garapen Iraunkorrekoko diputatuak, eta erabaki hori kritikatu egin du Elgoibarko ezker abertzaleak. Itxuraz guztiz errentagarria den negozioa esku pribatuetan jartzea "harrigarria" dela salatu dute.



Ekitaldia **Gernikako Akordioa**



Gernikako Akordioaren sinatzaileek ituna gizarteratzeko ekimenekin segitzen dute, gatazka politikoa gainditu eta Euskal Herrian prozesu demokratikoa abian jartzeko. Gernikan adostu zuten gutxiengo demokratikoen agiria Elgoibarren aurkeztu zuten joan zen astean. Jon Peli Urigueneak aurkeztu zuen ekitaldia, eta Itziar Ibabeak eta Izaskun Soraluzek irakurri zituzten agirian adostutako gutxiengo demokratikoak. Ahalik eta atxikimendu zabalena jasotzen saiatzea eta jendeak akordioa bere egitea dira sozializazio kanpainaren helburuak. Momentuz, ondorengo elkarteek eman diote babesela agiriari: Morcaikoko zuzendaritzak, CD Elgoibarko zuzendaritzak, Haritz dantza taldeak, Taupada antzerki taldeak, Ongarri zine klubak, Ongarri argazki taldeak, eta Benantzio Otaegi eta Tomas Madinabeitia apaizek. Aurkezpenean bildu ziren herritar gehienek ere eman zuten euren atxikimendua.

Irudia **Martxoaren 8ko elkarretaratzea**

Inauteriek eta Emakume Langilearen Nazioarteko Egunak bat egin dute aurten. Martitzenean, martxoaren 8an, egin zuten emakumeen aldeko elkarretaratzea Plaza Handian, *Ihauteriak eta feminismoa* lemapean. Berrito ere, emakumeen eskubideak eta berdintasuna aldarrikatu zituzten.



Bi elgoibartar sailkatu dira Euskal Herriko mus txapelketako finalerako

Josu Zialtzeta eta Luis Berdonces Euskal Herriko mus txapelketako finalerako sailkatu dira. Urruñan jokatu da final handia, martxoaren 12an. Gipuzkoatik 32 bikotek parte hartuko dute guztira, tartean elgoibartarren bikoteak.



Bertso bazkaria antolatu dute hilaren 26rako

Jon Maia eta Amets Arzallus bertsolariekin bazkaria egongo da martxoaren 26an, Arnaldo Askatu plataformak antolatuta. 13:00etan trikipoteoa egingo dute, Plaza Handian hasita, eta 14:30ean bazkalduko dute Ikaolako frontoian. Txartelak salgai daude 18 eurotan, Pitxintxun, Garate jantxidendan, eta Iturri, Jai Alai, Lanbroa eta Iratxo tabernetan.

Karta joko txapelketa jubilatuen egoitzan

Udalaren babesarekin karta joko txapelketa antolatu dute jubilatuen egoitzan martxoaren 14 eta 15erako. Musean, tutean, seiko urrean eta briskan jokatzeko aukera izango da. 16:30ean hasiko da txapelketa, baina parte hartzeko gaur da izena emateko azken eguna.


1971koen kinto bazkaria

1971. urtean jaio eta aurten 40 urte betetzen dituztenek kinto bazkaria egingo dute datorren maiatzaren 14an. Interesatuak 45 euro sartu beharko dituzte Euskadiko Kutxako kontu korrante honetan, apirilaren 20a baino lehen. 3035 0007 25 0071121855.

PAKO IRIONDO

MENDIZALIA

Museo bat da Pako Iriondoren etxia (Elgoibar, 1926). Mendizaletasunaren historiaren hainbat harribitxi topatu geinkez hango hormetan zintzilik edo apaletan gordeta. Izen haundiko mendizaliek handik eta hemendik ekarritako oroigarriak, mendizaletasunaren gaiñeko liburu sorta oparua, eta hemengo nahiz urrutiko gaillurretan ateratako erretratu pillia. Patxada haundiz erakutsi diguz danak, BARRENEN galderei erantzun dien patxada berarekin.



“Bizixa eman ditt neri mendixak”

Hamazortzi urtez izan zifian Euskal Mendizale Federazioko presidente, baiña lotura berezixa izan dozu beti Morkaikorekin, Elgoibarko mendizale taldiakin. Zelako hasiera izan zendun?

1953an hasi ziran presidentetzarako nere billa. Ni sasoi hartan futbolian liauta ibilli nitzan, baiña laga naban ziharo, neri mendixa gustau izan jatalako beti beste ezeren gaiñetik. Condenekeo tabernan geunkan orduan ofizinia, eta zuzendaritzako lau lagun eta bost bazkide etorri ziran, derrigor presidente jarri behar nitzala esanez. Mesedez eta mesedez etorri jatazen eta nik ezin ezetzik esan. Sekula ez diuet ezetz esan mendiko kontuei, baiña osterantzekuei bai. Ezer gabe hasi nitzan, eta hiru urtian ez naban asanblearik egin, gauzak nere gustura ikusi arte ezin nabalako beste ezertan hasi. Hiru urtera egin gendun asanbleia, Odeoi Zinian, eta 372 lagun etorri ziran. Berrito presidente aukeratu ninduen orduan.

Eibarko Klub Deportibuakin batera, Morkaiko erreferente zan orduan mendizalien artian.

Bai. Fuerte xamar hasi giñan mendira, eta Picos de Europa egin gendun gure lehenengo irteeria. Gero, Piriniotara jua giñan lehenengoz. Garai hartan Eibarko Klub Deportibokuek bakarrik egitten zittuen halakuak. Juliuan izaten ziran goi mendixetara irteerak, Santixago bueltan eta. Orduetik gaurdaiño urtero-urtero egiten dau irtera bat Morkaikok Piriniotara, eta nik ez dakitt Eibarko Klub De-

portibua kenduta Euskal Herrixan ba ete dan beste talderik horrenbeste urtian eutsi dionik.

Pentsatzekua da ilusio haundixakin, baiña gaur besteko kontu bari hasiko zifiatela.

Guk orduan ez gendun esperientziarik bat ere ez. Jantzixa eta halakuak ere tamaiñan, eta pioleta, barriz, bi edo hiru lagunek bakarrik. Hala ere, gitxien-gitxien jua giñanian 28 lagun jua giñan autobusian, bost-sei neska ere bai tartian. Jendia gustura etortzen zan mendira, iñor ez gendulako lagatzen guk atzian galduta. Aurrian juaten ziran zuzendaritzako bi, bidia erakusten, eta sokian azkenian beste bi, iñor bidian geldittu ez zaixan. Juanito San Martin eibartarra lagun hartuta juaten giñan lehenengotan, esperientzixa haundixa zekalako, baiña laster haren biharrik ere ez gendun izan, geu konpontzen giñalako. Zarauztik, Debatik eta Eibartik ere etortzen ziran gurekin, eta gaillur inportantiak egin genittun. Nafarroako pirineuak, Piedrafita, Aneto... danak pasau genittun, eta sekula azidente bat ez gendun euki. Organizazio zoragarrixa izaten zan, eta bakarren batek geldittu biharra baldin bazakan, danok gelditzen giñan hari lagun egitten. Horixe da inportantiena. Garai hartatik hona, Elgoibarko mendizaliek nibel haundixa hartu debe, eta Elgoibarko mendizaliek Picosen eta Piriniotan eta ezaguera haundixa dake.

“Mendixan, gauzarik edarrena alkarri laguntzia izan da beti”

Ezaguera haundixagoa bai, baiña mendira juatia samurragua ere izango da oiñ, hala?

Dudarik ez izan. Kotxerik ez zaguaz orduan, eta lehenengo-lehenengotan kamioietan juaten giñan gu mendira. Aizkorriara, Aralarra, Gorbeara, Beriainera eta hórretara kamioian juaten giñan. Durangaldera, berriz, trenian. Leku zoragarrixa da Durangaldia. Gero autobusian hasi giñan. Aizkorriara juateko, adibidez, Maltzagan egiten gendun transbordo bat, gero Mekolalden beste bat, eta handik Oñatira. Oñatin pare bat ordu egon behar izaten giñan lineako autobusaren zain, Arantzazura juateko. Askotan, zain ez egotiarren, oiñez igoten giñan gora. Aralarra juateko, berriz, goizian seiretan oiñez juaten giñan Maltzagara, Eibarluñea autobusa hartzeko. Gaur egun hori siñistu ere ez debe egingo askok. Mendira hasi giñanian, adibidez, motxilarik ere ez geunkan askok, eta bi edo hiru motxilatatan eruaten gendun jateko dana: berakatzopia, tortillaren bat eta okelia.

Mendi garaixetara udan juaten ziñaten zuek. Gaur egun, berriz, urte sa-soi osuan.

Gu udan, udaberrixa eta udazkenian bakarrik juaten giñan, jantzirik ere ez zaguaz orduan. Lagun koadrillan juanda nago neu ere ne-guan mendira, baiña hori diferentia da. Irteerak antolatzen diranian edozein etorri leike, eta ezin da halako arriskurik hartu. Bik edo hiruk zittuen orduan kranpoiak, eta hárek egindako oin bidietatik pasatzen giñan gu gero. Morkaiko erreferente bat izan da beti Federazioarentzako. Angel Sopena eta Pedro Otegi presidentiek, esate baterako, sarri eskatu ziguen laguntasuna guri.

Mendixari errespetua galdu jakola entzun izan dizugu sarri. Hala da?

Egixa da hori. Askotan, azidentiak gertatzen diranian, *"iba bien equipado y tenía experiencia porque ya había estado en tal sitio y en tal sitio!"* agertzen da egunkarixetan eta abarretan. Hórrek gauzak irakurtzen dittutenian harrituta gelditzen naiz. Mendixan hil diran askoren kasuan badakigu ezagutza faltagaittik edo eurek egindako huts bategaittik izan dala, baiña isildu egin behar izan gara sarri, hildakuaren ingurukuei miñik ez egitteko. Badakizu zenbat gauza ikusi dittuten nik eta zenbat bidar isildu behar izan naizen?

Jende gehixago ere badabil oiñ mendixan...

Konforme, baiña guk jakin behar dogu beste batzuk juan arren, gu ez gaudela biharbada edonora juateko. Inprudentzia asko gertatzen dira, eta mendizaliak jakin behar dau atzera egitten ere. Hori ez da porrot bat, hori garaipen bat da, mendixa ez dagolako beti bardin, eta geu ere ez. Mendixa hemendik hilibetera juanda ere, han egongo da. Akordatzen naiz behin, 1959ra aldera, Aneton pasau jakunakin. Emakume bat gaixorik etorri zan mendira, eta denbora asko galduarazi zigun. Gabian ondoezak eman zion, eta hantxe hasi ziran gorabeherak. Refujixoko nagusixangana juan eta hala esan nion: "Bixarko eskursiua suspendidu egin behar dogu guk, andra hau behera bajatzeko, eta lau lagun beharko dittudaz kamillia hartuko dogun bixon motxilak eta guri re-lebua hartuko digueneren motxilak bajatzeko". Renclusako refujiuan hartu gendun kamillan emakumia Ignacio Eizagirrek eta bixok, eta bost ordu t'erdixan bajau gendun Benasqueraino. Miñ hartutako emakumia ez zan Morkaikokua, baiña mendixan alkarri lagundu behar diogu.

Ez jatzu begittantzen jendia prisa haundixegixakin dabilenik oiñ mendixan?

Bai, bai. Danian pasatzen da hori. Lasaittasuna bihar da, eta ahal dan eta gehixen ikasi, erraz eta gustura ibiltzeko. Mendira juan, eta ez dis-

frutatzia espektakulu bat ikustera juan eta ez ententitziaren parekua da. Mendixan, gauzarik edarrena alkarri laguntzia izan da beti. Lehen iñori ez jakon egun on bat ukatzen, eta oiñ berriz, hitz bat esateko as-tirik ez dauka jendiak. Yo-yo kulturua da hori. Edukaziua eta baloriak galdu egin dira, eta estresak zeresan haundixa dauka hor. Beste kontu bat ere badago. Mendixak zabortegi haundi egin dira oiñ. Beittuizu Everest zelan dagoan! Kalian ere ikusten dot nik hori. Papeleria onduan eta haraxeño pauso bat eman ez jendiak! Nerekin mendixan ibilli diranek behintzat danek dakixie motxillan plastikozko poltsa bat eruan bihar dala eruandako dana morrallian atzera etxera ekartzeko.

Beste prisa klase batetaz ari nitzan ni. Piriniotara juan aurretik inguruko baztar danak ezagutzen zenitula entzuna dizut. Orain, berriz, ez dakitt ez ote dan kontrakua pasatzen.

Gaizki egiña. Ehun lagunetik 70ek ez dittue Euskal Herriko mendixak ezagutzen. Aralar, Negurixa, Udalaiz... Aiako Harrittik hasi eta Sierra Salvadoraiño zenbat mendi eder ete daude! Informazioz intoxikauta daude gaur egunian mendixan hasten diran gaztiak, eta segittuan Piriniotara juan nahi izaten debe. Pare bat 3.000ko egin, eta Alpietara gero! "Mont Blancera guaz" esanez etortzen jataz. Ez daixala iñork pentsatu ikasi biharreko dana ikasitta daukanik, mendixa beti da gu baiño gehixago eta.

Juan San Martiñek esana da euskaltzetasuna eta mendizetasuna eskutik juan izan zirala urte askuan. Zer diñozu?

Izan leike hori ere. Gure maisuak behintzat oso euskaltzaliak izan ziran, eta bat edo bi kenduta, taldian ibiltzen giñan danok euskaldunak giñan. 1943an sortu gendun Morkaiko, baiña ni ordurako Eibarko Klub Deportiboko bazkide nitzan, eta han oso euskaltzaliak ziran. Ondo kontontzen giñan eibartarrak eta algoibartarrak. Billerak ere alkarrekin egitten genittun Eibarko Kalbetoi kalia, Morkaikokuek, Club Deportibukuek eta Durangoko Tabirakuek.

Ignacio Eizagirre eta Pako Iriondo.



Morkaiko aittatu dogu lehen. Gogoeta prozesuan ere parte hartu dozu. Zelan ikusten dozu herriko elkartia?

Gaur egunian bariazio haundixa dago Elgoibarren: trabesiako eskixa, eskaladia, mendiko karrerak... Jendia ere preparatuago dago, batzuk behintzat, eta oiñ derrigor asmau behar dira gauzak jendia gustura eukitzeko. Nik beti esaten diuet gauzak organizatzekotan ondo organizatzeko, eta danak hartzeko kontuan. Bakarrik lagako diuen bildurra badauka bakarren batek jai dago, hurrenguan atzera egingo dabelako horrek seguru-segururu. Osterantzekuan, erropak dirala, karrete-rak dirala edo transportia dala, erraztasuna da dana gaur egunian. Garai batian Hiru Erregeen Mahaira eta Anira Belaguetik irten bihar izaten zan. Bost ordu pasako bidia izaten zan. Oiñ, berriz, automobilla lagatzen dozun lekutik Anira hiru ordu eskas daude.

Federaziotik ere zailtasunak izan diran aldiro deittu dizue. Lehenengoz presidente aukeratu zindduezenian ere hala izan zan.

Bai. 1967an Peruko Andeetara espediziua antolatu zebeñ, tartian neure lagun batzuk. Pentsautako mendi guztiak egin zittuzten, eta alde horretatik, arrakastatsua izan zan, baiña bestelakorik ere izan zan. Bilbora bueltatu ziranian, ongi-etorrixa egitten ari zirala, diapositibetako batian ikurriña bat agertu zan. Bat ere maliziarik gabe egin zan, baiña sasoi haretan ikurriña debekatuta zagan eta han sortu ziran komerixak: batzuk barrura, Juan Ignacio Llorente Bartzelonan atxilotuta, Federazioko presidentia Gobernu Zibileru eruanda, eta ikurriña sartu zebana ihes eginda! Orduantxe desagertu zan Federaziua, eta baita *Pirenaica* rebestia ere. Egoera horretan, bilbotar bat jarri zebeñ Federazioko presidente, Madridik atzaparrakin aukeratu. Eibar, Azpeitia eta hemen inguruko lagunek fitxatu nindduen ni. Zuzendaritzara sartzeko eskatu zien eta Kostaldeko eta Martxa eta Kanpamenduetako delegatu izendatu nindduen. Kostalde inguru honetan sei bat mendiko talde zauden orduan, baiña haiñ ondo egin genittuan gauzak 23 talde batu giñala azkeneko. 1971n, urtian azkenian egitten gendun bazkarixan, kanpora ertetzeko eskatu zien, berba egin behar zebela eta. Presidentetzarako aurkezteko eskatu zien, eta ezin izan niuen ezetzik eman. Iruñan izan zan hori, 1971ko iraillaren 19xan. Lau hautagai geunden, eta botazian neu aukeratu



Kamillan jaitsi zebeñ Morkaikokuek Aneton ondoezik zagan Zaragozako andra bat.

nindduen. Neu izan nitzan demokratikoki aukeratutako lehenengo presidentia, ordura arteko danak atzaparrakin jarri zittuelako.

Bigarren aldixan hamalau urtez izan ziñan presidente, 1986tik 2000ra.

1976ko otsaillaren 6ra arte egon nitzan lehenengo aldiz presidente, eta 4,5 milloi pezeta-rekin laga naban Federaziua. 1886ko uztailaren 20xan berriro deittu zien, neu bihar nindduela eta. Urte eta erdirako izango zala esan zien, baiña hamalau urte egin nittuan. 1974an hasittako Piedrafitako refugixua amaitzia izan zan egin naban lehen gauzia.

Federazioan ere gauza askorik gabe hasi ziñaten.

Ez geunkan ez boligrafo bat, ez papel bat eta ez ezer. Apirillaren 28xan karpeta txiki bat eta 28.000 pezetako taloi bat eman zien. Orduan, eskribitzeko makiñek 25.000 pezeta balixo zebeñ, eta huraxe erosi bihar zala esan zidan sekretarixuak. Makiñia erosis gero, baiña, dirurik ez geunkan beste ezertarako, eta ezetz nik; konponduko giñala nola edo hala. Laboralian lanian zebillen lagun batek lagatzen zidan ordura arte makiñia, eta tallaretik irtendakuan juaten nitzan ni billa. Eta handik ofizinara. Hurrengo egunian lanera juaten nitzanian emaztiak entregatzen zaban Laboralian. Azkenian, baiña, erosi giñuan makiñia, hillian 1.000 pezeta ordainduta (10.000 pezeta balixo zittuan).

Zer eman dizu zuri mendixak?

Dana. Eman ditt forman zaintzeko inddarra, eta, batez ere, satisfazio haundixa. Baztar asko ezagutu dittut, eta jendiakin tratatzen


ere erakutsi ditt. Horrek danak laguntasun haundixa ematen ditt orain beste gauza asko gainditzeko. Nik egin doten lana gustatzen jatalako egin dot. Beste oferta batzuk ere izan dittut, baiña danak baztatu dittut. Mendixari, baiña, sekula ez diot ezetzik esan. Hori bai, ez nuan pentsatzen erantzuna tamaiña hortakua izango zanik, eta jendiak horren estimutan izango nindduanik, azken batian egin bihar ziran gauzak egin dittutelako. Bizixa eman ditt neri mendixak eta mendixakin lotutako lanak.

Mendiko lasterketen fenomenoak inddar haundixa hartu dau, mendizale askok begi onez ikusi ez arren. Zer diñozu zuk?

Nik neuk ere ez dot holan ententitzen mendizaletasuna, baiña jendia libre da nahi dabena egitteko, mendixa errespetatzen badabe behintzat. Kilometro bertikalak, kirol eskalada, mendiko karrerak... nik neuk ez dot gustukua denboria hartzia, baiña hórrek danak mendizale elkartien barruan sartzen badira arrazoi bategaitik da: aktibitate horrek geuk hartu ezian beste talde batzuk hartuko dittuelako. Hor daukazu Hiru Haundixak proba. Neri ez jata sekula gustau hori. Norbere buruakin lehian jardutia, bien, baiña hortik aurrera... Neurritz kanpokuak begittantzen jataz neri hórrek, bi eguneko karrerak-eta. Ni seguru nago benetako mendizale gutxi ibilliko dirala hor, hórrek ez diralako osasuntsuak. Horrek faktura pasatuko die. Erlojuari begira egitten dan dana da txarra.

INAUTERIAK ARGAZKITAN







Mendaroko Aingeru Guardako jaiak, begiratu batean

Giro onean joan dira Aingeru Guardako jaiak. Martitzenean hasi zituzten, baina zapatua eta domeka izan dira jaietako egun handiak. Zapatu goizean, Arnoateko Igoera jokatu zen, eta Oier Ariznabarreta durangarrak irabazi zuen (20:42). Haren atzetik sailkatu ziren Josu Uriarte markinarra eta Joseba Altuna azpeitiarra. Jon Larrañaga izan zen mendarotarretan azkarrena (23:16). Domekan, berri, ermita inguruan hasi zuten eguna. Meza ostean, eta Aizpera bazkaltzera joan aurretik, bertsoez eta herri kirolez gozatzeko aukera izan zuten han. Andoni Egaña eta Aitor Sarriegi bertsolariek girotu zuten gero bazkalostea. Argazki gehiago: www.ElgoiBARREN.net atarian.



Andoni Egaña bertsotan, Aitor Sarriegi lagun hartuta.



Jendetza handia batu zen Aingeru Guardan, herri kirolak ikusteko.



Oier Ariznabarreta, Arnoatera iristen.



Arnoateko Igoeran parte hartu zutenetako batzuk lasterketa bukaeran.



Gotzon Zulaikak eta Jon Larrañagak lokotx batzen jardun zuten.



Lurdes Rodriguez eta Asier Landa trikitilariak.

Ezkondu ahal izateko gutxieneko adina 14 urtekoa izatea txikiegia dela diote hainbat adituk. Ezkontzeko egokia iruditzen zaizu 14 urteko adina?



Ana Mari Lasa
67 urte, etxeoandrea

Ez. 14 urteok gazteegiak dira ezkontzeko. Adin horretan umeak dira oraindik, eta amaren babesean bizitzeko hobeto daude, ezkontzeko baino. Ni neu 24 urterekin ezkondu nintzen, eta gaur egun zaharrago ezkontzen da jendea. 14 urterekin ez behintzat!



Maria Luisa Aranguren
54 urte, etxeoandrea

14 urte ez da ezkontzeko adina. Egia esan ez dakit zein izan daitekeen ezkontzeko adin egokia. Nik uste dut bakoitzak dakiela ondoen noiz den momentu egokia, baina ez behintzat 14 urterekin!. Hala ere, horrelako gauzetan aritzea baino zeregin garrantzitsuagoak baditu Gobernuak.



Adeli Saiz
63 urte, etxeoandrea

14 urte? Ezta pentsatu ere! 20 urtetik gora, gutxienez! Ni 21 urterekin ezkondu nintzen, eta urtebetera eduki nuen lehenengo semea. Gaur egun ez nintzen inola ere horren gazte ezkonduko. Gaztaro guztia galdu nuen umeak hazten, eta bizitzako une guztiak aprobetxatu behar dira.



Oscar Huerta
31 urte, delineatzailea

Ez. 14 urterekin jendea ez dago ezkontzeko prest. 16 edo 18 urteko adina hobeto ikusten dut, baina ez naiz ausartzen ezkontzeko adinik egokiena zein den esaten. Hala ere, adinez nagusia izatea gutxieneko baldintza izan beharko litzatekeela uste dut.

■ SEMAFOROA




Zorionak Barren astekariari, txaloen eta kexen atal honi eustearren. "Salaketak publiko eginez gero, Udal arduradunek kasu handiagoa egiten dute, beharbada hauteskundeak ganean ditugulako, baina sikieran zerbait lortu daiteke. Elgoibarko Udalak Ermuaranbidetako zebraidea lekuz aldatu du, orain dela hilabete batzuk argitaratutako kexa batek eskatzen zuen bezala. Jendea animatu nahiko nuke Elgoibarko gorabeherak publikoki salatu ditzan, politikariek, bestela, ez baitute herriaren alde ezer egingo. Eskerrik asko".



Inauterietan Dominiken eskolako moja eta ikasleen garaia antzestu zutenek eskerrak eman nahi dizkiete Azkoitiko Larrañaga familiari: "Eskerrik asko inauterietako mozorroa prestatzeko ideiak emateagatik. Mozorro berberarekin Azkoitiko lehiaketa irabazi zuten haiek, eta guk Elgoibarkoa irabazi dugu. Mila esker guztiagatik".

Santa Klara komentuko mojek eskerrak eman nahi dizkiete jostailuen bilketa kanpainan lagundu duten guztiei: "Mila esker erabiltako jostailuak ekarri dizkiguzuen guztioi. Elgoibartarren kolaborazioari esker jostailu pila bat bidali ditugu Mendebaldeko Saharara, eta hango umeek esker onez hartu dituzte. Bihotz-bihotzez, eskerrik asko".



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibarkoizarra.com 943 744 112

Erretratu zaharra



1984

Aste honetako erretratu zaharra Jose Luis Aranak ekarri du BARRENEko erredakziora. 1984. urteko inauterietan ateratako argazkia da. Koadrilan irten ziren lagun hauek, eta umore onean pasatu zuten eguna. Ikusi dezagun zeintzuk diren:

Goian, zutik ezkerretik eskumara: Pili Pedrosa, Iñaki Barrutia, Imanol Garcia, Jose Luis Arana, Maria Eugenia Kortaberria, Isabel Azkue, Koro Ezkurra eta Jose Angel Bereziartua. **Makurtuta**, ezkerretik eskumara: Alfonso Arrillaga, Rafael De La Cruz, Iñaki Mujika, Alberto Ajo eta bere emaztea (Argazkia ekarri duenak ez du bere izena oroitzen).



ESKERTZA

CRESCEN ZABALA ARANBERRI

*Zinelako eguzki,
geunden zure inguru;
zinelako hain ona,
asko zor dizugu;*

*zinelako maitasun,
maitatzen zaitugu;
argiaren fruituak
opa dizkizugu...*

2011ko martxoaren 9an hil zen, 78 urte zituela. Haren oroimenez meza izango da, domekan, goizeko 10:30ean Sallobenteko elizan. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Otsailean...

JAIOTAKOAK



Ane eta Eneko Cearsolo Zuazubizkar Otsailak 2
Iñigo eta Nerea



Markel Herrera Arteaga
Otsailak 4
Jose Luis eta Monica



Erik Agea Martinez
Otsailak 11
Felix eta Raquel



Laia Martinez Astigarraga Urtarrilak 25
Igor eta Olatz

Oihan Iparragirre Etzaniz
Otsailak 9
Imanol eta Maider

Ane Astigarraga Etxeberria Otsailak 16
Ion eta Mireia

Nora Cabanillas Gomez
Otsailak 17
Miguel Angel eta Laura

Noa Garate Bastida
Otsailak 20
Miguel eta Nora

Ane Bastida Diez
Otsailak 22
Jose Ramon eta Marta

HILDAKOAK

Jesus Garaialde Mugertza • 54 urte • Otsailak 1
Felipe Araujo Daquinta • 57 urte • Otsailak 3
Beatriz Ayesta Albizu • 86 urte • Otsailak 4
Josefa Larrañaga Uranga • 86 urte • Otsailak 6
Miren Leiaristi Etxeberria • 93 urte • Otsailak 9
Sebastian Bellota Martinez • 65 urte • Otsailak 10
Sebastian Etxeberria Agote • 85 urte • Otsailak 11
Paqui Miera Diaz • 73 urte • Otsailak 15
Belen Hervias Compañon • 83 urte • Otsailak 17
Romana Badiola Salegi • 86 urte • Otsailak 18
Jose Amuategi Arizaga • 80 urte • Otsailak 23
Maria Ormaetxea Inarrairaegi • 94 urte • Otsailak 27

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua
OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK**

**NORBANAKOEI
eta
KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak**

**Erietxe
zentruetan
zerbitzuak**

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 / (Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56
(Sakelekoa) 635 756 295

Jaiotakoen atalean zure seme-alabaren erretratua jarri nahi baduzu, hila beteko lehenengo astelehenerako ekarri behar duzu erretratua **BARRE**neko erredakziora edo barren@elgoibarkoizarra.com helbidera bidali. Jaiotakoen argazkia jartzeagatik **3 euro** kobratzen dugu.

Goazen euskara planaren balantze ‘gazi gozoa’ egin du IMHk 2010ean

Fabrikazio mekanikoari buruzko *metala.eu* komunitatea aurkeztu du IMHk

Martitzenean aurkeztu zuen IMHk Goazen euskara planaren 2010eko memoria, eta balorazio “gazi gozoa” egin dute arduradunek. Oro har, urte ona izan dela adierazi dute, baina oraindik hobetzeko gauzak badituztela zehaztuta. Datu aipagarrienen artean, euskaraz ematen dituzten prestakuntza eta zerbitzu orduen gorakada nabarmendu zuten: 2010ean 11.644 ordu eskaini ditu ikastetxeak euskaraz, ia baino 2.000 ordu gehiago, alegia. IMHko eskaintza ordu guztien %30 eskaintzen dute euskaraz.

Langileek lanean zenbat euskara egiten duten ere neurtu dute, eta datuak ia izko antzekoak dira. 2003an plana abiatu zutenean %32koa zen euskararen erabilera IMHn, eta gaur egun

%44,5ekoa da. IMHko arduradunen helburua 2015erako %65era iristea da.

2010ean 20 urte egin zituen IMHk, eta izandako lorpenen eta egindako ekintzen artean nabarmendu zituzten: batetik, ekintzailetasuna eta euskara sustatzeagatik jaso zuten Lanabesa Saria, eta bestetik, 30+10 mintegia.

Zazpi urte pasatu dira Goazen euskara plana martxan jarri zutenetik, eta, oro har, gustura daude planak izan duen garapenarekin. Udalarekin beste urtebeterako hitzarmena sinatu dute.

‘Metala.eu’

IMHk fabrikazio mekanikoari buruzko *metala.eu* komunitatea jarri du martxan. Euskarazko edukiekin sortutako komunitatea da, eta hezkuntza eta enpresa mun-



duari ekarpenak egiteko asmoz sortu dute. Hiru atal nagusi dauzka atariak: albistekak, fabrikazioari buruzko informazioa euskaraz, eta galderak egiteko txokoa. Wikipediaren antzeko komunitatea da, euskarazkoa, eta fabrikazio gaietarako. Euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez dago webgunea, baina euskarari lehentasuna eman diotela azaldu dute.

‘Ecografias’ eta ‘Grebán gaude’ antzezlanak, martxoaren 8ko egitarauaren barruan



Martxoaren 8ko egitarauaren barruan bi antzezlan ikusteko aukera egongo da asteburuan. Gaur gauean, *Ecografias* antzezlanaren taularatuko du Makiescenika taldeak Elgoibar-ko Herriko Antzokian, 20:30etik aurrera. Karmele Jaio idazle eta kazetariak idatzitako bazarriketan oinarritutako ikuskizuna da. Amatasunera bidaiatzeko aukera eskainiko du, eta Adids Abbebara (Etiopia) ume bat adoptatzera doan emakumea izango da protagonista.

Bihar, bestalde, *Grebán gaude* emanaldia ikusteko aukera izango du Mendaroko San Agustin kultur gunean, 19:00etan hasita. Greban dauden hiru garbitzaileen istorioa da, eta greban daudela bakoitzak bere izaera erakutsiko du. Ironia handiarekin maitasuna, familia, sexua, ilusioa eta inguruko gaiak jorratuko dituzte, eta emakumezkoen pentsaera eta ikuspegi ezberdinak azaldu.

Bideo ikastaroa eskainiko du Ekekei taldeak, bihar

Ekekei antzerki taldeak Internet bidezko telebistari buruzko bideo ikastaro trinkoa antolatu du bihar-ko. Sei orduko saioa izango da: Goizean atal teorikoa landuko dute 9:30etik 14:00ak bitartean, eta arratsaldean praktikak egingo dituzte, 15:30etik 18:00etara. Izena emateko 690 670 021 telefonora deitu daiteke. 30 euro ordaindu behar dira, bazkaria barne.

Sare sozialei buruzko formazio saioa

Gazteria Sailak sare sozialei buruzko formazio saioa antolatu du martxoaren 23rako. Guraso, irakasle, tutore eta, oro har, hezitzaileentzako formazioa izango da. 19:00etan hasiko da, eta bi orduko iraupena izango du. Ikastaroan parte hartzeko bi euro ordaindu behar dira. Informazio gehiago Gazteria Sailean (943 741 050)

Ikastolako frontoia bete egin zen zapatuan, Pilota Egunean

6 eta 14 urte bitarteko ikasleek hartu zuten parte



Joan zen zapatuan Pilota Eguna ospatu zuten Elgoibar Ikastolan. 6 eta 14 urte bitarteko ikasleek hartu zuten parte, eta guztira, hamasei partida jokatu zituzten, hamabi tantora. Neska zein mutil nor baino nor aritu ziren lehian. Eguerdi aldean banatu zituzten sariak, eta irabazleek zein galtzaileek ikusleen txalo zaparrada handiak jaso zituzten. Umore eta giro onean ospatu zuten pilotaren jai.

Mendi eski irteera antolatu du Morkaikok martxoaren 19ko astebururako

Morkaikok mendi eski irteera antolatu du martxoaren 19-20ko astebururako. Izena ematen duen jendearen arabera, ibilbide desberdinak egongo dira aukeran. Batek, mendi eskian ibiliak direnentzako ibilbidea antolatuko dute, eta, bestetik, kirol honetan hasi berriak direnentzako. Ibilbideak oraindik zehaztu ez badituzte ere, erakarriak eta seguruak izango direla aurreratu dute antolatzaileek.

Morkaikok, gainera, materiala ere lagako die alokairuan horren beharra dutenei. Irteeraren prezioa eta ordua oraindik zehazteke dituzte. Interesatuak morkaiko@morkaiko.net edo 646 966 198 telefonora deitu dezakete.

Amaitu dituzte Ikastolako goiko kanpoko obrak



Elgoibar Ikastolak eta Udal Kirol Patronatuak ikastolako goiko kanpoa berritu dute. Hiru aste iraun du obrak, baina dagoeneko erabiltzeko prest dago. Ikasleek, Eskola Kiroleko partaideek eta herriko hainbat kirol elkartek erabiltzen dute kantxa.

EMAITZAK

FUTBOLA

Haundi 1 – Amurrio 1 (3. maila)
Zarautz 0 – Elgoibar 2 (Kad. A)

PILOTA

Udaberr Txapelketa

Lagunak 22 – Eibar 16 (1. mailako nag.)
Intxurre 22 – Lagunak 11 (2. mailako nag.)
Segura 22 – Lagunak 11 (2. mailako kad.)
Lagunak 25 – Mundarro 16 (Pala)

Debarroko txapelketa

Lagunak 10 – Ozkarbi 22 (Nag.)

ARETO FUTBOLA

Concepto Createch Elg. 5 – Santurtzi 2 (1. maila)
Erain 7 – King Kong kafetegia 2 (Jub.)

XAKEA

Añorga 1 – Mekatar Elg. 3

ESKUBALOIA

Alkorta Elg. 38 – Arrasate 22 (Sen. mut.)
Usurbil 21 – Grupo Eibar Elg. 29 (Jub. nesk.)

AGENDA

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Domeka, 13

10:30 King Kong kafetegia – Goierri (Jub.)

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 12

12:30 Elgoibar – Urki (Kad. B)
15:30 Elgoibar – Vasconia (Inf. Txiki)
17:30 Elgoibar – Urola (Erreg. Pref.)

Domeka, 13

16:30 Elgoibar – Lagun Onak (Ohorezko jub.)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 12

10:15 Bankoa Elg. – Legazpi (Inf. mut.)
11:30 Astigarraga Elg. – Udarregi (Inf. nesk.)
16:30 IMH Elg. – Aloña Mendi (Kad. nesk.)
18:00 Grupo Eibar Elg. – Basauri (Jub. nesk.)

PILOTA

Domeka, 13

11:00 Lagunak – Intxurre (2. mailako nag.)

Gaur hasiko da xake ikastaroa

Elgoibarko xake taldeak antolatuta, gaur hasiko da xake ikastaroa. Elkarteak Pista Beltzean duen lokalean emango dute ikastaroa, barixakuero, 18:45etik 20:00etara. Interesatuak lokalera agertu daitezke.

LANA

ESKAERA

- Mutila eraikuntzan edo baserrian lan egiteko prest. Esperientziaduna. ☎ **685 212 060**
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. ☎ **618 052 967**
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. ☎ **616 690 415**
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. ☎ **943 742 201 / 652 715 908**
- Neska eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko, edo beste edozein lan egiteko. Esperientzia dauka. ☎ **650 152 866**
- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egin, sukaldian laguntzeko edo nagusiak zaintzeko. Orduka. ☎ **671 343 612 / 943 531 931**
- Emakume euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko. ☎ **687 114 707**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. ☎ **608 474 923**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Orduka edo interna. ☎ **686 234 612**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna. Psikologia eta geriatría ezagutzak ditut. ☎ **635 313 375**
- Neska gaztea interna moduan lan egiteko prest. Esperientzia daukat. ☎ **646 977 562**
- Gizona eskaintzen da lanerako. Nagusiak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko, eraikuntzan pei lanak egiteko edo ospitalean gaixoak zaintzeko. ☎ **677 155 611**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Interna edo orduka. ☎ **618 734 000**
- Neska gaztea edo umeak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **616 690 415**
- Gizonezkoa lanerako prest. Eraikuntzan edo baserrian egingo nuke lan gustura, baina edozer hartzeko prest nago. Nire herrialdera itzultzeko hegazkin txartela erosteko dirua behar dut. ☎ **685 212 060**
- Neska gaztea edo umeak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **606 226 827**

- Neska gaztea edo umeak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **662 267 569**
- Emakumea tabernak eta lokalak garbitzeko prest. 13:00etatik 17:00etara. Asteburuetan ere lan egiteko prest. ☎ **638 527 489**
- Emakumea nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Interna edo orduka. ☎ **646 821 678**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Edozein ordutan, eta asteburuetan ere. Esperientziaduna. ☎ **678 972 690**
- Mutil elgoibartarra zerbitzari edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **626 490 986**
- Emakume euskalduna adineko emakumeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **626 490 986**
- Neska garbiketa lanak egiteko edo nagusiak zaintzeko prest. Edozein ordutan. ☎ **699 813 826**
- Emakumea edozein lan egiteko prest. ☎ **943 033 908**
- Emakumea garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **636 517 025**
- Neska edozein lan egiteko prest. Interna edo orduka. ☎ **681 212 449**
- Tornugilea lanerako prest. CNC tornuetan 25 urteko esperientzia. ☎ **609 040 872 (Imanol Azpiazu)**
- Emakumea edozein lan egiteko prest. ☎ **679 80 903**

ESKAITZA

- Emakumea behar dut umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. ☎ **699 795 994**
- Esperientziadun emakumea behar da umeak zaintzeko. ☎ **605 480 813**
- Esperientzia duen edo ama den emakumea behar da haurtxo bat zaintzeko. Zortzi orduko lanaldia. Goizez. ☎ **659 287 122 (arratsaldez deitu)**

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUA ETA SALMENTA

- Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **685 212 060**
- Pisua alokatzen dut Elgoibarren. ☎ **650 80 91 90**
- Benidorm. Apartamentua alokatzen dut Benidorm erdigunean. Erosoa eta aire egokituarekin. ☎ **943 740 628**

- Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **608 474 923**
- Pisua alokatzen dut Sigman. ☎ **943 120 343 (12:30-16:00 eta 20:00-22:30 artean deitu. Mari Jose)**
- Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren edo inguruetan. ☎ **698 390 818**
- Etxea salgai Elgoibarren. Hiru logela, sukaldia, komuneta eta egongela. Berritua, oso egoera onean. Prezio interesgarria. ☎ **688 658 183**
- Seme-alabarik gabeko boliviarr bikoteak etxea hartuko luke alokairuan. Altzariekin, logela bakarrekota edo bikoa. ☎ **645 555 265**
- Apartamentua salgai Sabiñanigon, Jacatik hamar minutura. 35 metro koadro, trastelekua eta terraza. Altzariekin, eguzkitsua. ☎ **696 272 311**

PARTIKULARRAK

- LH, DBH eta kontabilitate klase partikularrak ematen ditut. Esperientzia daukat. ☎ **666 042 710**
- LH1 eta DBHko klase partikularrak ematen ditut. Bakarka edo talde txikietan. ☎ **686 611 665**
- DBHko matematikako klase partikularrak ematen ditut. Talde txikiak. ☎ **943 744 206**

BESTELAKOAK

- Jaunartzeko erretratu zahar bat aurkitu dut kalean. Udaltzaingoan laga dut.
- 8 urteko txakurra oparitzen dut. ☎ **943 743 561**
- Pultsera bat topatu dut. Udaltzaingoan laga dut.
- Somier artikulatu elektrikoa salgai. 1,05x1,90, neurria aldatzeko hankak, latex koltxoia, eta barandauk. ☎ **943 742 864 (Mikel)**
- Patinete beltz bat galdu dut, lehoi berde baten irudierekin. Topatu duenak, mesedez, BARRENERA eraman dezala.
- Urrezko kate bat aurkitu dut, eta Udaltzaingoan laga dut. • 60 urtekoen bazkaria maiatzaren 28an. Interesatuek 20 euroko bermea sartu behar dute ondorengo kontu korronte zenbaki honetan: 3035 25 00071121796. ☎ **943 740 779 (Mari Karmen)**

Lanbroa



**Gosariak
Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak**

Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 6etatik aurrera.
Larunbat eta jaiegunetan goizeko 8etatik aurrera.

Pedro Muguruza, 5 · Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

ileapaindegia · Estetika · Solarium-a

Idama



Otsaileko irabazlea:
JANIRE EGAÑA

Martxoko saria:
PLANTXA TXIKIAK ETA SPRAY BABESLEA


Antonio Arrillaga, 6-8 behe (sarrera Santa Ana kaletik)
Tel.: 943 74 40 26



• Zorionak, **Unax**, 2 urte egingo dituzulako domekan. Aiton-amona eta familiako guztien partez.



• CQC kasting-a Elgoibarren! Zorionak, **osaba**, gaur urteak egin dituzulako. Zure sei iloben partez.



• Jai giroa dagoen tokian aurkituko duzu beti! Zorionak zure 34. urtebetetzean. Segi horrela!



• Zorionak, **Adei**, zure zazpigarren urtebetetzean. Etxekoen partez! Zelako ondo pasatu genuen!



• Zorionak, **Dune**, bihar 7 urte egingo dituzulako. Familiakoekin partez.



• Zorionak, **Mikel**, zure bigarren urtebetetzean. Muxu handi bat denon partez.




• Zorionak, **Iuren**, zure lehenengo urtebetetzean. Amama, aittitta, izeko eta osabaren partez.



• Zorionak, **Victor**, 2 urte egin dituzulako. Anaren partez, muxu bat.




• Zorionak, **txikitina**, zure lehenengo urtebetetzean. Aittittaren, amamaren, gurasoen eta bereziki, Paulen partez.



• Zorionak, **Iker**, ostira-lean 4 urte egin zenituelako. Muxu handi bat denon partez, mutil haundi!




• Zorionak, **Ane** maitia, bihar 15 urte egingo dituzulako. Zorionak, guraso, aitona-amona, osaba-izeko eta lehen-gusinen partez.



• Zorionak, **Nahia**, bihar urte bat beteko duzulako. Familiakoekin partez.



• Aupa, **Ixaso!** 20 muxu handi etxekoen, eta bereziki txikien partez!



• Zorionak, **Haizeal** Etxeko txikienak 4 urte egin ditu! Muxu pila, denon partez.



• Zorionak, **Ilargi!** Gure etxeko matxinsaltoa zara! Muxu handi bat etxekoen partez.



• Zorionak, gaur urteak betetzen dituzulako. Etxekoen partez, eta bereziki Ikerren, Julenen eta Asierreren partez.



• Zorionak zuen ezkontzaren 25. urteurrenean! Amaren eta familiakoekin partez.

Erretratu bakarreko agurra: 3 euro. Argazki bikoitza: 5 euro. Hirukoitza: 7 euro. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 euro. Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguztzen eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu. **BARRENEko** bulegora 12:00ak baino lehen, edo_barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

PREST

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

902 110 436

www.mondragon.edu/prest

ATE IREKIAK

Goi Eskola Politeknikoa

ARRASATE MARTXOAK 17 osteguna, 17:30

ORDIZIA MARTXOAK 26 larunbata, 11:00

Gastronomia Zientzien Fakultatea

VITORIA-GASTEIZ MARTXOAK 12
larunbata, 10:30 **EUROPA BILTZAR JAUREGIA**

ARETO NAGUSIAN
Etorri aurretik izena eman!



11 barixakua

Odol emaileak

18:30 Odol ateratzeak
Odol ateratzeak egingo dituzte, odol emaileen lokalean.

Skitaldia

20:00 Ongi-etorria
Mikel Ibañez preso elgoibartarrari ongi-etorria egingo diote Plaza Handian.

Antzerkia

20:30 'Ecografías'
Makiescenas taldeak taularatuko du Herriko Antzokian.

12 zapatua

Ikastaroa

9:30 Bideo ikastaroa
Sei orduko bideo ikastaro trinkoa antolatu du Ekekeik. Kultur Etxean.

Antzerkia

19:00 'Greban gaude'
Mendaroko San Agustin kultur gunean.

Musika

22:30 Kontzertua
Nahixan eta Manent taldeen kontzertua, Gaztetxean.

13 domeka

Irteera

10:00 Mendi irteera
Elgoibar Ikastolako gurasoek antolatuta, Jarindo mendira egingo dute irteera.

Musika

12:30 Musika Bandaren kontzertua
Herriko Antzokian.
1. *Pompa y circunstancia*, martxa. (E. Elgar)
2. *Los cuentos de Hoffman*, barkarola. (J. Offenbach)
3. *Palindromia flamenkoa*. Saxofoi bakarlaria Aitor Nova izango da. (A. Ruda Peco).
4. *James Bond 007*, selekzioa. (John Barry).
5. *Poupourri mexikarra*. (Diego Moreno).

15 martitzena

Musika

19:30 Talde Instrumentalen kontzertua
Musika Eskolako taldeek kontzertua eskainiko dute auditorioan.

18 barixakua

Erakusketa

19:00 'Bizitza guztia ume izaten'
Idi Ezker fundazioak eta Elgoibar1936 taldeak antolatuta, hilaren 27ra arte egongo da ikusgai.



**Martxoaren
17an euskal dantza
tailerra ludotekan.**
Animatu eta
ezagutu gure
sustraiak!!

Emakumearen
eguna pasa dela
eta, **erakusketa** dago
ikusgai topagunean, eta
igandean "**Frida Kalho**"
pelikula ikusiko dugu.



**2011ko Elgoibarko
eta Mendaroko
gida komertziala
eskuratu nahi?**
**Pasa BARRENETIK eta
hartu bat doan**

OKINDEGIA

13 domeka IBARRENEA

FARMAZIAK (24 orduz)

11 Etxeberria (Errosario)
12 Ibañez
Goizez: Yudego
13 Ibañez
14 Garitaonandia-Bidasolo
15 Etxeberria (Santa Ana)
16 Fernandez
17 Yudego
18 Zabaleta

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro) Tel: 943 756 142

Ibañez -Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel: 943 751 638

Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze)
Tel: 943 751 384

ZINEA

«127 horas»

12, zapatua: 19:00/22:15
13, domeka: 19:00
14, astelehena: 21:30

«A casa por navidad» (Ongarri zinekluba)

17, eguna: 21:30

«Enredados»

13, domeka: 16:30



«127 horas» Zuzendaria: Danny Boyle. Estatu Batuak eta Erresuma Batua, 2010. Iraupena: 96 minutu. Generoa: Drama. Aktoreak: James Franco, Amber Tamblyn, Kate Mara. Aron Raslton alpinistaren benetako istorioa da. Utah-ko harkaitzetan eskalatzen ari dela istripu bat izango du, eta besoan min hartuko du. Egoera gogor horretan bizi irauteko ahal duen guztia egingo du.

«A casa por navidad» Zuzendaria: Bent Hamer. Norvegia, Suedia eta Alemania, 2010. Iraupena: 85 minutu. Generoa: Komedia dramatiko. Aktoreak: Arianit Berisha, Sany Lesmeister, Nadja Soukup, Nina Zanjani. Norvegiako Skogil herrixkan adin eta klase sozial diferenteetako bizilagunak elkartuko dira. Umorea eta tragedia uztartuko dituzte, barkamenaren eta itxaropenaren bidean. Istorio ezberdinak gurutzatuko dira, eta adin desberdinetan amodioak dituen faseak ezagutuko dituzte.



Gremioen

GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea
☎/Faxa: 943 74 31 16
www.biena.es
info@biena.es

Imar

Aroztegia
Olaso 15,55 pabilioia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabilioia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.fjlodoso.euskalnet.net

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Igeltseritza

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2
☎ 943 53 18 47
☎ 647 463 436 (Floren)

Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,
11 behea
☎ 943 25 45 22

Pagoaga

San Antolln, 13
☎ 943 74 02 79

Pagoerota

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

Tellabide

Azpilgoeta, 7 • Mendaro
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

Santana Iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa: 943 53 18 25

Zubizarreta Instalazioak

Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



Autoentzako tindatutako kristalak

Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabilioia
☎ 943 74 30 94



Sarrailagintza

Giltzak

Arragueta, 3 (Eibar)
☎ 943 701 391
www.giltzak.com



Proiektu eta erreformak

Estudios Arrillaga

Errosario, 15 behea (Elgoibar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Eibar)
☎ 943 200 698



Elektrizitatea

Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza
Morkalko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
Mendaro
☎ 659 934 964



Pinturak

Blok dekorazioa S.L.

Upalz zaharra, 14 behea
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

Ipintza

Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 607 74 04 40

Ku Kolorea

Urasandi kalea, 26 behea
☎ 943 74 88 43
☎ 660 52 25 87





OSASUN GIDA



MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda. Naturopata, Iridiologoa eta Homeopata.

(Pisu kontrola, "Dieta erraza", Bach loreak, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak, masajeak, doitze neurologikoa, astrologia medikuntza eta hipnosia). Familia konstelazio tailerrak. Naturopata, makrobiotika eta P.N.L. kontsultak, ordua aurrez hartuta. San Bartolome, 29- Tel: 943 744 031 Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Sanatana Dharma Yoga Elkarte

Anginei aurre egiteko masajea.

Urasandi, 9

Tel: 943 748 593 (Idoia) - 685 722 131

Astearte eta ostegunetan:

10-11:30 / 18-19:30 / 20-21:30

Mendaro: Astelehen eta asteazkenetan: 15-16:30

MASAJISTAK

Victoria Iraegi

(Esku-terapiak: kiropraxia, dranatzaille linfatikoa, osteopatia, kirol masajea (bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa bendajea). San Frantzisko kalea, 40 (atzealdea) Tel.: 943 740 770 Astelehenetik Ostiralera: 8:00 / 14:00

PODOLOGOAK

Oinberri

Errosario kalea, 25

Tel: 943 741 795

Astelehenetik ostiralera:

9:00-13:30 / 15:00-19:30

Iñigo Arrillaga Yudego

- Hanken afekzioen terapia.

- Neurrira egindako plantilak.

- Hanka diabetikoen zainketa.

- Ordenagailuaren bidezko

hankaren azterketa.

San Frantzisko kalea, 20 behe

Tel: 943 741 645

Ordutegia: 9:30-13:30 / 15:30-19:30

FISIOTERAPIA

Ainhua Fisioterapia

Jausoro, 6 behe.

Goiz eta arratsalde.

Tel.: 943 531 953 / 669 565 745

ORTOPEDIKAK

Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

Tel: 943 74 35 62

OPTIKAK

Ikus optiko-optometrista

San Bartolome, 10 - Tel: 943 743 734

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

San Frantzisko, 21 - Tel: 943 740 359

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

HORTZ KLINIKAK

Irale

Errosario Kalea, 7 behe (Elgoibar)

Tel: 943 743 679

Zeharkalea, 8 behe (Ermua)

Tel: 943 177 134

irale@irale.com - www.irale.com

Leku eder

Elena Herrero Lobo.

Aita Agirre enparantza, 5 behe.

Tel: 943 530 053 - lekueder@infomed.es

Beltia Arriola

- Odontologia orokorra eta ortodontzia

- Haurren Hortzagin programa

- Panoramikak eta telerradiografiak

Trenbide kalea 21, behe

Tel: 943 531 869

